

# Klikertzen: Azalpenezko testua

# Klikertzen: Azalpenezko testua

## GAI ZERRENDA:

Menu nagusia	2
Gida didaktikoa:	
Helburuak	5
Ebaluazio-irizpideak	6
Jarduerak	
Testuak:	9
Egileak:	72

## **NOIZ ETA NOLA SORTU DEN**

Aplikazio hau ikasleek era autonomoan lan egin dezaten sortu da. Horretarako, aldi berean lantzen dira hizkuntza eta inguru fisikoa.

## **ERABILTZEKO IRADOKIZUNAK**

- Ikaslearen menuan: Testuak banan-banan lantzea, jarduera guztiak eginez.

### **MENU NAGUSIA:**

## **GIDA DIDAKTIKOA**

DBHko lehen zikloko ikasleentzat pentsatua dago, ulermeneko estrategiak garatzen laguntzeko.

## **HELBURUAK**

Curriculumeko testu idatzien ulermenari dagozkionak, eta hain zuzen ere azalpenezko testuari dagozkionak:

- Azalpenezko testuaren ezaugarri nagusiak bereiztea: makroegitura, igorle mota, hartzailea, subjektibotasuna, objektibotasuna, testuaren helburua, modalizazioa eta egitura.
- Testuen ulermena errazten duten irakurtzeko estrategiak garatzea.
- Testuen ulermena zailtzen duten hizkuntza-elementuekin praktikatzea.

## **OINARRIZKO GAITASUNAK**

- Ikasten eta pentsatzen ikastea, eta informazioa interpretatzea, sortzea eta ebaluatzea.

\* Ikasteko eta lan egiteko ohiturak eta ikasteko estrategiak eskuratzea...

- Hizkuntza ofizialetan komunikatzea.

- Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea.

- Egiten eta ekiten ikastea.

## EDUKIAK

Ikastekoak diren eta esperientziarekin loturik dauden testu didaktikoen eta egunerokoen informazioa ulertzea: liburuxkak, ikasliburuak, deskripzioak eta azalpenak.

Irakurritakoa ulertzeko estrategiak erabiltzen hastea: ikasleak aurrez dakiena erabiltzea, antizipazioak egitea.

*Hipotesiak* egitea eta edukia laburtzea eta asimilatzea.

Izenburua ezagututa, testuaren edukiari buruz hipotesiak egitea.

Irakurri ahala, hurrengo hitza aldeztetik asmatzea.

Irakurritakoaz baliatuta, inferentziak egitea.

Testu-egituraz baliatuta, hainbat hipotesi egitea.

Paragrafoen birformulazioak egitea.

Ulermen-arazoak antzematea: ulertzen ez diren hitzak.

Azalpenezko testu-generoa ezagutzea.

Gelan landutako testu-generoak ezagutzea, osagai testualak erabiliz.

## EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Ea bereizten dituen azalpenezko testuaren ezaugarri nagusiak:

- Ea bereizten dituen honako makroegitura hauek: azalpenezko testua narrazio edo argudiozko testuen artean.
- Ea bereizten duen igorle aditua.
- Ea bereizten duen igorle ez-aditua.
- Ea bereizten duen subjektibotasunez idatzitako azalpenezko testua.
- Ea bereizten duen objektibotasunez idatzitako azalpenezko testua.
- Ea bereizten duen informazioa partekatzeko helburua duen testua.
- Ea bereizten duen irakasteko helburua duen testua.

- Ea bereizten duen zientzia dibulgatzeko helburua duen testua.
- Ea bereizten duen erabateko ziurtasuna igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen zalantza igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen umorea igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen adeitasuna igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen begirunea igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen ironia igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen harrokeria igorlearen adierazpenean.
- Ea bereizten duen zerrenda moduko egitura azalpenezko testuan.
- Ea bereizten duen kausa-ondorio moduko egitura azalpenezko testuan.
- Ea bereizten duen alderaketa edo konparazio moduko egitura azalpenezko testuan.

Ea interpretatzen duen testu osoa ulertzeko beharrezkoak diren oinarrizko elementuen (lexikoa, lokuzioak) zentzua. Ea ulertzen duen paragrafoen birformulazioa.

Ea ulertzen dituen testuen ulermena zailtzen duten hizkuntza-elementuak:

- Ea aurkitzen duen izenak ordezkatzeko baliabideen erreferentea: izenordeak, deiktikoak, sinonimoak, erlatibozko perpausak...
- Ea ulertzen dituen juntagailuek ezartzen dituzten erlazioak.
- Ea ulertzen dituen antolatzaileek ezartzen dituzten erlazioak.

Ea testuaren generoa bereizten duen eta haren gaia ondorioztatzen duen.

Ea ulertzen duen eskolan erabiltzen diren testuetan argi adierazten den informazioa: eskolako testuak.

Ea interpretatzen dituen testuko elementu linguistiko eta ez-linguistiko oinarrizkoenak, testua osorik ulertzeko beharrezkoak direnak (lexikoa eta testuaren egitura).

Ea hautematen dituen azalpenezko testuetako ezaugarri nagusiak.

Ea erabiltzen dituen irakurritakoa ulertzeko estrategiak.

Ea hipotesiak egiten dituen irakurri ahala.

Ea irakurri ahala asmatzen duen hurrengo hitza aldeztetik.

Ea irakurri ahala asmatzen duen testuaren edukia aldeztetik.

Ea inferentziak egiten dituen irakurritakoaz baliatuta.

Ea hainbat hipotesi egiten dituen testu-egituraz baliatuta.

## **JARDUERAK**

SARRERA:

Testu honetan, unibertsoari buruzko informazioa eta jarduerak aurkituko dituzu. Jarduerak unibertsoa nolakoa den ulertzeko eta datuak ikasteko dira. Baina, aldi berean, azalpen-testuen ezaugarriak aztertuko dituzu.

### **AZALPENEZKO TESTUAK IDENTIFIKATZEA:**

Orain, azalpenezko testuak identifikatu behar dituzu. Jarraian agertzen diren testuen artean, zeinek dute azalpena emateko helburua?

### **AZALPENEZKO TESTUEN HELBURUA IDENTIFIKATZEA**

Azalpenezko testuen helburua, eskuarki, hauetako bat izaten da: irakastea, informazioa partekatzea, zientzia zabaltzea, ideologiaren bat zabaltzea, gomendioren bat ematea...

Irakur itzazu ondoren agertzen diren testuak, eta esan zein den testuon helburua:

### **AZALPENEZKO TESTUEN IGORLE MOTA IDENTIFIKATZEA**

Azalpenak ematea, idatziz edo ahoz, denok egin dezakegu; hala ere, gaia zenbat eta hobeto ezagutu, azalpen hobea izan daiteke. Testu batzuk ez dira pertsona bakar batek eginak, talde batek baizik. Testua sortzen duenak gaia ondo ezagutzen badu, esan ohi da aditua dela. Komunikatzeko asko dauka; askotan, hartzaileak baino askoz gehiago. Orduan, ahalegin berezia egin behar du, hartzaileak erraz uler dezan. Esan bezala, azalpenezko testuak, askotan, talde batek sortuak izaten dira.

Irakur ezazu ondoren agertzen den testua, eta esan nolakoa den sortu duen igorlea: aditua, ez-aditua, pertsona bat ala talde bat.

### **AZALPENEZKO TESTUEN MODALIZAZIO MOTA IDENTIFIKATZEA**

Igorleak, aditua izan edo ez, jarrera desberdina izan dezake, hau da, izan daiteke harroputza, adeitsua, irmoa... Horrenbestez, testuetan adierazten dena modu askotan egin daiteke: ziurtasun osoz, iritzi bat bezala, zalantzaz, umorez, adeitasunez, begirunez, ironiaz, harrokeriaz...

Hona hemen hainbat baieztapen. Esan ezazu nola dauden adierazita: ziurtasun osoz, zalantzaz, umorez, iritzi bat bezala, adeitasunez, begirunez, ironiaz ala harrokeriaz.

### **AZALPENEZKO TESTUEN SUBJEKTIBITATEA ZEIN OBJEKTIBITATEA IDENTIFIKATZEA**

Testua egiten duenak informazioa soilik adieraz dezake, baina bere iritzia ere bai. Igorleak bere iritziak eta sentimenduak zenbat eta gehiago adierazten dituen, orduan eta subjektiboagoa izango da testua. Testu subjektiboetan, igorlearen iritziak, sentsazioak eta inpresioak agertzen dira.

Irakur ezazu honako testu hau, eta esan objektibotasunez ala subjektibotasunez idatzita dagoen.

## AZALPENEZKO TESTUEN EGITURA IDENTIFIKATZEA

Ideiak ordenaturik adierazten dira testuan, baina ordenatzeko hainbat era daude. Hona hemen batzuk: zerrenda modukoa, alderaketa edo konparazioa eta kausa-ondorioa.

1. Zerrenda modukoa: ideiak bata bestearen ondoren, zerrenda baten moduan.
2. Alderaketa edo konparazioa: bi ideia edo objektuen arteko konparazioa egiten da. Egokia da objektuen eta ideien arteko berdintasunak eta desberdintasunak adierazteko.
3. Kausa-ondorioa: gertakarien edo ideien kausa adierazten da, eta kausa horiek eragiten dituzten efektuak edo ondorioak ere bai.

Hona hemen zenbait testu. Esan ezazu zer egitura duten; hau da, adierazi behar duzu informazioa nola dagoen antolatua: deskripzioa, kausa-ondorioa ala alderaketa edo konparazioa den.

## AZALPENEZKO TESTUAK ULERTZEA

### *IRAKURLE TREBEAREN ESTRATEGIAK*

**Atal honetan, hiru jarduera mota agertzen dira: hurrengo hitza aldeztetik asmatzea, hipotesiak egitea eta inferentziak egitea.**

- Hurrengo hitza aldeztetik asmatzea:  
Irakurgaiak agertuko dira, baina ez testu osoa. Testua gelditu egingo da hainbat tokitan, eta erabiltzaileari eskatuko dio hurrengo hitza aldeztetik asmatzeko.  
Hiru hitz eskaintzen zaizkio. Bat zuzena da, beste biak anonimoak izaten dira.
- Hipotesia egitea: irakurgaia poliki-poliki agertuko da, eta hainbat tokitan gelditu egingo da. Erabiltzaileak emandako hipotesiak zuzenak ala okerrak diren baloratu beharko du.  
*HIPOTESIAK*: gaiari buruzkoak dira, testu motari buruzkoak, gertakariei buruzkoak...
- Inferentziak: irakurri ondoren, baieztapen batzuk agertuko dira. Erabiltzaileak "bai" ala "ez" aukeratu behar du.  
Inferentziak testuan zuzenean ematen ez den informazioa dira, baina testuari dagozkio edo munduaren ezagutzari.

Esan egia ala gezurra den.

## IZENEN KOHESIOA

Atal honetan, gaiari jarraitzeko erabiltzen diren baliabideak ulertzeko ariketak eskaintzen dira. Honela sailkatu ditugu:

- Polisemia
- Hiperonimia-hiponimia
- Sinonimia
- Anafora: zehaztugabeak, elipsia, erakusleak, izenordainak, hiponimoak eta hiperonimoak.
- Gaia bereiztea.

**KONEXIOA:** Juntagailu edota antolatzaile bat gorriz azalduko zaio, eta horren ordez zer jar daitekeen galdetuko zaio erabiltzaileari. Hiru aukera ematen dira.

**PUNTUAZIOA:** Testu zati bat ematen da, puntuazio-marka batzuk kenduta. Aukeratu egin behar da ematen direnen artean: puntu eta jarrai, koma, harridura-marka, bi puntu, puntu eta koma.

**PARAGRAFOZ PARAGRAFO BIRFORMULAZIOAK EGITEA:** Ezkerreko paragrafoa dagokionarekin lotu behar da (hiru aukera ematen dira, eta bat aukeratu behar da).

### **AZALPENEZKO TESTUEI IZENBURUA JARTZEA**

Testuek, oro har, izenburua izaten dute. Izenburuari esker jakin dezakegu testuan adieraziko diguten mezuaren gai nagusia zein den edo zertan datzan.

Irakur itzazu honako testu hauek, eta aukera ezazu egokiena deritzozun izenburua.

## TESTUAK:

### 1. Zugatz eder bat

Izar batek dirausta alai eta pozez «laguntxo, zatoz neugaz eta poztu zaitez», ta laztan bat emonaz goxo maitasunez beragan hartuten nau ama batek legez, bere zorionean ni murgildu naihez.

### 2. Nola detektatzen dira exoplanetak?

Planetek, izarrek ez bezala, ez dute berezko argirik; horregatik, guk planetak ikusi ahal izateko, izarren argia jaso behar izaten dugu. Hala ere, izarrek distira handia izaten dute, eta, askotan, distira horrek inguruan biraka ari diren planetetako argien isla estaltzen du. Zerua arakatzeko, astronomoek teleskopio bereziak erabiltzen dituzte, argi infragorria detektatzen dutenak. Dena dela, oraindik ezin izan da zuzenean exoplanetarik ikusi; horregatik, lehen saiakerak bestelako datuetan oinarrituta egin dira. Teleskopio handiagoak eta hobeak egiten ari direnez, espero da etorkizunean planetak zuzenean ikusi ahal izango direla. Orduan, beste teknika batzuk erabilia, atmosferaren ezaugarri nagusiak zein diren eta planetetako lurzoruaren osagaiak zein diren jakin ahal izango da... Exoplanetak aurkitzeko sistemetariko bat planeta horiek izar nagusian eragiten duten perturbazioetan oinarritzen da. Planeten igarotzea zainduta ere detekta daitezke exoplanetak. Gaur egungo tresnekin eta teknikekin ezin dira exoplanetak ikusi; besteak beste, exoplanetek oso argi gutxi igortzen dutelako. Baina, biraka ari dela planeta izar nagusiaren aurretik igarotzen bada, izar nagusiaren distira txikiagoa izango denez, antzeman egingo da. Efektu hori planeta Lurraren eta izarren artean igarotzen denean baizik ezin da nabaritu, eta ez edozein baldintzatan... Aipatutako behaketa ez-zuzenez gain, exoplanetak aurkitzeko behaketa zuzenak ere egiten ari dira. Bide horretatik, oraindik ez da emaitzarik lortu, baina, egunen batean, agertuko dira. Izan ere, gero eta teleskopio handiagoak egiten dira, argia detektatzeko gaitasun handiagokoak. Dena dela, handitasunak mugak ditu, ispiluak handiegiak badira egiturek ez baitiote pisuari behar bezala eutsiko eta, ondorioz, behaketak ez baitira zehatzak izango. Handitasunean mugak daudenez, teleskopioen arteko elkarlan-sistemak garatzen ari dira, baina oraindik badago koordinazio-arazoren bat edo beste. Espazio-teleskopioen bidea ere ari da egiten, nahiz eta oso garestia izan. Eta, azkenik, teleskopio infragorri indartsuak egiteko aukera garatzen da. Bide horietan guztietan aurrera egin ahala, eta aipatutako teknikak batera erabilia, nabarmen ugartuko dira exoplanetak begiz ikusteko aukerak.

### 3. Lurraren forma nolakoa ote da?

SHANG TE: Baliteke, nik ez baitut kanpotik ikusi, baina batzuek diote arrautza bezalakoa dela.

SHANG TE: Goringoa Lurra litzateke, eta zuringoa airea.

ODIN: Eta Eguzkia?

SHANG TE: Zeruan dabil, jira eta bira.

SHANG TE: Horixe da dena. Zure ustez, nolakoa da?

ODIN: Laua! Lurra laua da, disko zapal bat. Disko zapala Ozeano izeneko ibai handiak inguratuta dago. Eguzkiak egunero egiten du zeru-sabaian zehar bidaia,

gauero itsasoan sartzeko. Gauetz itsasoa zeharkatu ondoren, hurrengo goizean berriro ekialdetik irteten da.

#### 4. Unibertsoa Pitagorasek arabera

Unibertsoan, 10 objektu besterik ez dago. Unibertsoaren erdian, Erdiko Sua dago. Hamar objektuak honako hauek dira: Erdiko Sua, Lurra, Ilargia, Eguzkia, Merkurio, Artizarra, Marte, Jupiter, Saturno eta "Antilurra". "Antilurra" Lurraren eta Erdiko Suaren artean dago. Ez da ikusten, Erdiko Suaren distirak ez baitu uzten. Eguzkia Lurraren eta Ilargiaren inguruan dabil.

#### 5. Unibertsoa amaigabea da ala ez?

A: Unibertsoa handitzen ari bada, suposatzen dut unibertsoa dela dagoen guztia. Beraz, unibertsoa kanpo ez dago ezer ere. Beharrezkoa da unibertsoa handitzen ari izatea? Agian, unibertsoa materia eta energia desberdin guztia soilik ari da desplazatzen.

B: Baina, gauza bat. Bai, agian desplazatzen ari da, baina ezereza ezereza da, eta nondik desplazatzen da, orduan?

A: Barkaidazu, baina hori gezurra da. Ez dakit badakizun ere, baina unibertsoa (eta hau mundu guztiak daki) handitzen ari da, eta, handitzen ari bada, zer dago kanpoan? Galdera hau egin duenak arrazoi du, eta galdera hau oso ona da. Aupa, ezezagun hori!

#### 6. Unibertsoa eta gizakiaren sorrera

Panguk sortu zuen munduan ez zen gizakirik. Jainko eta jainkosak bai, ordea. Garrantzitsuena Nüwa zen. Panguk sortu zuen ordena iraunarazteko ardura zuen Nüwak. Aintzira batean bizi zen, eta oso gorputz berezia zuen: erdia herensugearena, eta beste erdia gizakiena bezalakoa. Behin batean, aspertuta zegoela, aintzirako lokatzarekin irudiak egiten hasi zen. Nüwak munduari oso polita zeritzon, baina bakar-bakarrik sentitu, eta lagunak sortu zituen. Lokatzarekin gizakume-itxurako irudiak egiten hasi zen. Burua eta besoak, bereak bezalakoak, baina hankak, ez. Bi hanka jarri zizkien, zutik eta azkarrago ibil zitezkeen. Behin gizakiak sortuz gero, adimena eman behar zien. Eta hori Fushik egin zuen. Fushi Nüwaren neba zen, jakinduriaren jainkoa. Hainbeste gustatu zitzaion, non gizakiak sortzen aritu baitzen oso berandura arte! Hurrengo goizean, esnatutakoan, Nüwa bere lana ikustera joan zen. Gizakiak hantxe zeuden oraindik. Orduan, txistu egin zien, eta bizia eman zien. Hala da. Eta Fushik gizakiei adimena oparitu zien. Dena ondo zegoen, harik eta bi jainko, sua eta ura, elkarrekin borrokatu ziren arte. Suak mendi baten kontra jo zuen, harik eta mendia beheara bota zuen arte. Mendiak zeruari eusten zionez, mendiarekin batera zeru-hegala ere erori egin zen. Lurrak harrotu egin ziren. Zirrikitu batzuetatik sua irten zen, eta beste batzuetatik ura. Uholde handia sortu zen, eta gizaki asko hil ziren. Hura hondamendia! Deskalabrua ikusi zuenean, Nüwa samindu egin zen. Oso goibel zegoen. Eta zerua berriro konpondu behar izan zuen, berriro halakorik gerta ez zedin. Bada, zerua ez erortzeko, lau lekutan zerbait ipini zuen. Dortoka baten hankak jarri zituen zutabe gisa, eta, horrela, aurrerantzean zerua ezin eroriko zen. Harrezkero, dortokak zeruari eusten dio. Hanka bat iparrean du, bestea hegoaldean, hirugarrena sortaldean, eta, azkenik, laugarrena sartaldean.

## 7. Saturno

**EZAUGARRIAK:** - **KOKAPENA:** Eguzkitik hasita, seigarren planeta da Saturno, eta tamainaz bigarrena (Jupiterren atzetik).

- **ITXURA FISIKOA:** Eguzki-sistemako planeta distiratsuen da, eta eraztunik ikusgarrienak ditu. Haren kolore nagusiak horia, laranja, gorria eta batzuetan marroia izaten dira. Tenperatura altuena ezin da jakin, baina normalena 143 °K izaten da. Translazio-aldia 29,46 urtekoa du, eta biraketa-aldia 10 ordu eta 32 minutukoa izaten da. Biraketa-abiadura azkarraren ondorioz, planetak itxura zapala du, eta, ikusten den bezala, poloetatik zapalduta dago. Saturnoren bolumena Lurrarena halako 740 da; hau da, Saturnok 740 Lur har ditzake momentu berean. Eta haren masa Lurrarena baino 95 aldiz handiagoa da.

- **GASEZKO PLANETA ERRALDOIA.** Jupiterri, Saturnori, Uranori eta Neptunori gasezko erraldoi deitzen zaie, eguzki-sistemako beste planetekin alderatuta izugarri handiak baitira eta ez baitute azal gotorrik, hau da, ez baitute azal finkorik. Kanpotik erdigunera, dena gas dira. Planeta horien nukleoa metal moduan portatzen den hidrogeno likidoz osatua dagoela uste da. Planeta horiek eraztun eta satelite ugari dituzte, eta atmosfera konplexua dute.
- **ERAZTUNAK.** Saturnoren ezaugarri nagusia haren eraztun handiak dira. Eratzun horiek ur izoztuzko partikula askok osatuak daude. Partikula horiek hauts-partikula mikroskopikoak izatetik metro gutxi batzuetako harriak izatera irits daitezke. 2006ko irailaren 19an, NASAk jakinarazi zuen beste eratzun berri bat aurkitu zuela. Cassini espazio-ontziak aurkitu zuen, Eguzkiaren atzean ezkutatzean.
- **SATELITEAK.** Saturnok, gutxi gorabehera, 30 satelite ditu. Saturnok duen satelite handienetariko bat Titan da, eta 1655. urtean aurkitu zuen Christiaan Huygens astronomoak. Eguzki-sistemako atmosfera garrantzitsuenetariko bat dauka.
- **OSAGAI NAGUSIAK.** Saturnoko atmosferaren osagai nagusia hidrogenoa da (%85). Horretaz gain, helioa, amoniakoa, metanoa, etanoa eta konposatu organiko gehiago ditu, hau da, bizia duten elementuetan ageri diren konposatuak ditu.
- **GALILEO GALILEI.** Galileo Galileik aurkitu zuen Saturno. 1610. urtean izan zen, baina, garai horietan teleskopioak oso onak ez zirenez, berak pentsatzen zuen Saturno ilargi handi bat zela.

**SATURNO IZENAREN JATORRIA.** Saturnoren izena jainko erromatar baten

izenetik dator. Kokapen orbitalarengatik —Jupiterretik urrun, hain zuzen ere—, erromatarrek Jupiterren aitaren izena jarri zioten: "Saturnus". Erromatar mitologiako Saturnus eta antzinako Greziako Kronos parekoak ziren, eta denboraren jainkoak ziren. Merkurio, Artizarra, Marte, Jupiter eta Saturno izar uxoak dira, eta denboraldi desberdinetan orbitatzen dute Lurraren inguruan. Bost planetetatik, Saturno da mantsoena, eta hogeita hamar (29,457) urte behar izaten ditu orbita osatzeko, ia-ia Jupiterrek halako hiru, hark 11,862 urte behar baititu orbita osatzeko. Eta Merkuriok, Artizarrak eta Martek alde handiagoa dute. Saturno esanguratsua zen, oso motela zelako. Jupiter Zeus izango balitz, Saturnok Kronos izan beharko luke, aita zaharra, izarren inguruan poliki-poliki ibiltzen zena.

SATURNOREN BITXIKERIA: Eguzki-sisteman ura baino dentsitate txikiagoa duen planeta da: 0,69 g/cm, hain zuzen ere. Saturnoren dimentsioak dituen ontzi bat existituko balitz, eta ontzia urez beteta balego, Saturno ur gainean geldituko litzateke.

## **8. ESPAZIOA NEURTZEKO LUZERA UNITATEAK**

Lur planetan distantziak kilometrotan (km) neurtzen ditugu, baina, espazioko distantziak km-tan neurtuko bagenu, erabili beharko genituzkeen zenbakiak oso handiak lirateke, eta, besteak beste, oroitzeko zailak eta idazteko deserosoak. Lurrean metroaren multiploak erabiltzen ditugu. Distantziak metrotan ez neurtzeko, km-tan neurtzen ditugu. Izan ere, Bilbotik Donostiara 119.000 m daudela esan beharrean, 119 km daudela esaten dugu. Edo Iruñetik Bartzelonara 437.000 m daudela esan beharrean, 437 km daudela esaten dugu, erosoagoa baita. Era berean, espazioko eta unibertsoko distantziak neurtzeko, beste neurri batzuk erabiltzen ditugu, baina ez dira metroan oinarritzen. Adieraz daitezke km-tan eta m-tan, baina ez dira sistema metriko hamartarraren baitako multiploak, kilometroa bezala. Kilometroa metroa baino mila aldiz handiagoa da, edo, bestela esanda, metroa kilometroa baino mila aldiz txikiagoa da. Unitate astronomikoak erabiltzen ditugu, beraz, espazioa neurtzeko. Hona hemen: argi-urtea, unitate astronomikoa (ua), eta parsec-a.

Unitate astronomikoa: Lur planetatik Eguzkiraino dagoen batez besteko distantzia da. Eguzki-sistemako distantziak neurtzeko erabiltzen da.  $1 \text{ ua} = 149\,597\,871 \text{ km}$

Argi-urtea: argiak urtebetean betetzen duen distantzia, hau da,  $9.461.000.000.000 \text{ km}$

Parsec-a: izar, planeta edo astroen artean dagoen distantzia neurtzeko erabiltzen da. Horretarako, astroen artean sortzen den angelua neurtzen da. Bada, angelu horren zabalera segundo batekoa denean, parsec deitzen zaio,

eta 30.857.000.000.000 km dira. Horiek horrela, erosoagoa da esatea Andromeda galaxia 700.000 parsec-era dugula, 25.199.900.000.000.000 km-ra dagoela esatea baino (25 trilioi km-ra!). Dena dela, metroarekin egiten den bezala, parsec unitatearen multiploak ere egiten dira; besteak beste, megaparsec-a eta gigaparsec-a ditugu. Megaparsec-ak milioi bat parsec ditu, eta gigaparsec-ak mila milioi parsec. Lur planetatik beha daitekeen unibertsozatiaren diametroa 28 gigaparsec-ekoa da. Txundigarria!

## **9. MATERIA ILUNA**

Duela gutxi arte, uste genuen materia-mota guztiak ezagunak genituela. 1933. urtean, Fritz Zwicky astrofisikaria, Coma galaxia-kumulua aztertzen ari zela, ohartu zen espero zitekeena baino materia gehiago zegoela: espero zitekeena baino 400 aldiz gehiago. Coma galaxia-kumulua ertzetako abiadurak, beraren ustez, ikusgai ez dagoen materiaren eraginaren ondorioa behar zuen, zeren ikusgai dauden galaxien erakurpen-indarra ez baita nahikoa kumuluari eusteko, ezta kumulua errotaziozko abiadurari eragiteko ere. Beraz, “desagertua den materia” behar zuen kumuluari eusteko. Hori dela eta, Zwicky-k materia ikusezinaren hipotesia egin zuen. Hurrengo berrogei urtean, inork ez zuen ezer aurkitu hipotesiari eusteko, baina, 1960-1970 bitartean, Vera Rubin zientzialari gazteak hipotesiari eutsi ahal dion beste gertakari bat aurkitu zuen: galaxia-multzo bateko galaxien abiadura handiegia da, ikusgai dagoen materia kontuan izanda. Harrezkero, beste zientzialari batzuek hipotesiari eusten dioten gertaerak topatu dituztela adierazi dute, baina horren aurka daudenak ere agertu dira. Aurka daudenak ustez, materia iluna egotea ezinezkoa da. Espero da hipotesia argitzea, 2013. urtean espaziora jaurtiko den teleskopioaren laguntzaz.

## **10. BAKARRIK OTE GAUDE UNIBERTSOAN?**

Sarri egin izan dio eta egiten dio gizakiak izenburuko galdera bere buruari. Alferrik oraingo, Lurretik kanpo ez baita bizitza-aztarnarik sekula aurkitu. Eta bila ari, ari da. Lurrean —eta Lurraren orbitan— dauden teleskopio ahaltsuenek tokirik urrunenak arakutzen dituzte. Exoplanetak dira orain helburua; hau da, eguzki-sistematik kanpo dauden planetak. Jadanik 100 aurkitu dira, eta, unibertsoa hain zabala izanda, askoz ere gehiago aurkituko dira. Beste norbait ba ote dago? Oraindik goizegi da horri erantzuteko. Eguzki-sistematik harantzago aurkitu den azken planetaren berria udazkenarekin batera iritsi da. Dauden datuen arabera, planeta hori, tamainaz, Jupiterren antzekoa da. Lau urtetik behin, Tau 1 Gruis izeneko izarraren inguruan egiten du bira. Lurretik 100 argi-urtera dago eta bere izarretik ia 500.000.000 kilometrora. Udazkeneko hego-haizearekin iritsi dira azken exoplanetari buruzko berriak, lehendik ere gai

horri buruzko interesa handia izan den arren. Izan ere, gizateriaren historian ez dira gutxi izan unibertsoan bakarrik gauden edo ez jakin nahi izan duten filosofoak eta zientzialariak. 2000 urte iragan dira Epikuro filosofoa bizi izan zenetik. Hark bere hipotesia idatzirik utzi zuen: “Unibertsoan gurea bezalako mundu ugari daude, antzeko zibilizazioekin”. Milurteko bi igaro behar izan dira lehen exoplanetak aurkitzeko; oraingoz, baina, ez dute gurearen antz handirik.

## **11. PLANETAK**

Lurra hirugarren planeta da. Janaria, ura, oxigenoa, ozono-geruza, karbono dioxidoa... dauzka. Lurra oso txikia da.

Marte: Marte planeta gorria da, burdina asko baitauka. Erromatarrei esker deitzen zaio Marte. Itsaso izoztua dauka. Marten ez da inor bizi.

Jupiter: Jupiter planetarik handiena da. Ia erabat laranja da, eta hirurogeita hiru satelite ditu.

Eguzkia: Eguzkia eguzki-sistemako argizagirik handiena da, eta Esne Bidearen erdian dago.

## **12. Unibertsoaren ikuskera**

Aristotelesek ikuskera geozentrikoa zuen unibertsoari buruz. Lurra erdigunean kokatuta legoke, lau elementuak —lurra, ura, airea eta sua— dituela. Goian, bosgarren elementua —eterra— kokatzen du. Hor, ilargia eta orduan ezagunak ziren planetak daude, eta, oraindik gorago, kristalezko esfera bat; izar mugiezinezko esfera bat, hain zuzen. Lurra ez diren beste gainerako zeru-gorputz guztietan, mugimendu bikaina gertatzen da, hots, zirkularra. Lurrean, berriz, bi mugimendu-mota bereizten ditu: naturala —gorputz orok, duen konposizioagatik, dagokion lekura joateko duen joera (adibidez, lur gehiago duenak erortzeko joera du, bero dagoenak gora joateko joera du, etab.)— eta bortxatua —jaurtigailuena—. Azken hori azaltzeko —hau da, nola den posible jaurtigailu bat ez erortzea bat-batean—, airearen bulkadaren teoria asmatu zuen.

## **13. UNIBERTSOAREN KOLOREAK**

Behin baino gehiagotan galdetu digute ea galaxiak eta nebulosak benetan diren argazkietan ikusten diren kolore horietakoak. Galdera ona. Erantzuteko nekeza. Zergatia ulertzeko, jo dezagun sarera eta konpara ditzagun argazki horiek,

guztiak Orion nebulosakoak. Zeinek erakusten du nebulosa benetan den bezalako? Galdera horren erantzun on bat hau izango litzateke: “Zer esan nahi duzu?”. Ez baikara ohartzen, horrelako nebulosa baten barnean bageunde, hutsean gaudela pentsatuko genuke. Nebulosa eder horiek horrela ikusten dira urrutitik, eta argazkietan soilik. Berez, horrelako gauza eder baten erdian gaude: Esne Bidea. Eta ez ditugu galaxietako kolore zoragarri horiek ikusten. Egia da gure atmosfera traba handia dela, baina, hori gabe ere ez genuke geure galaxia ondoko argazkian ageri den bezala ikusiko. Galaxia osorik ikusteko distantziara joango bagina, argia ahulegia izango litzateke, eta gure ondoko Magallanesen Hodeiak bezala ikusiko genuke, gauza zuri bat bezala. Giza begiak mugak ditu. Nahiko fotoi jasotzen ez dituenean, ezin ditu koloreak nabaritu, eta zuri-beltzean ikusten du. Argazkietan koloreak agertzen dira, fotoiak metatzeko gaitasuna baitute. Baina, ez pelikula kimikoak, ez detektagailu elektronikoak, ez dira perfektuak, eta koloreak interpretatu egiten dituzte. Hori dela eta, aurreko argazki horietako batek ere ez luke Orion nebulosaren benetako kolorea jasoko. Baina kontua, izatez, hori baino konplikatuagoa da oraindik. Giza begiak espektroaren zati txiki bat besterik ezin du jaso, argi ikusgaia deritzoguna. Baina askoz ere argi gehiago dago. Hori dela eta, sarrera honen lehenengo galdera gaizki planteatuta zegoen. Ezin dugu galdetu ea nebulosak argazkietan ikusten diren bezalakoak diren. Galdera zuzena da ea gure begietarako horrelakoa izango litzatekeen. Heldu gara, azkenik, blogaren sarrera honen zergatira. Club Sur Astronómico elkarteari esker, web-orri zoragarri bat aurkitu dugu: Chromoscope. Bertan, gure galaxia eta unibertso osoa ikusteko aukera dugu, baina hainbat argi-motatan: infragorrian, X izpian, irrati-uhinetan, alfa-hidrogenoan eta mikrouhinetan. Zeinek erakusten du nolakoa den unibertsoa?

## **IZENBURURIK GABE**

14. Barkaidazu, baina hori gezurra da. Ez dakit badakizun ere, baina unibertsoa (eta hau mundu guztiak daki) handitzen ari da, eta, handitzen ari bada, kanpoan badago zerbait, nahitaez.
15. Dena unibertsoa bada, ez dago beste ezer gehiago; beraz, unibertsoa ezin da zabaldu. Hori burutazioa!
16. Ez da oso argia izan behar jakiteko, unibertsoa inoiz bukatzen ez denez gero, unibertsoatik kanpo ez dagoela ezer, unibertsoa besterik ez.
17. Gure iritziz, unibertsoa bukaezina da; hortaz, ez dago ezer.
18. Nik ez dakit unibertsoa amaigabea den ala ez; baina zu ez zara konturatzen esan duzuna ergelkeria hutsa dela?

19. Gure ustez, ez dago ezer, bukaezina baita.
20. Unibertsoetik kanpo ez dago ezer, unibertsoa bukaezina baita.
21. Nik badakit ez dakidala unibertsoa nolakoa den. Dakidana da informazio gehiago behar dudala.
22. Bai, bai, unibertsoa amaigabea da, zure ezjakintasuna bezalakoa!
23. Eguzkia gure izarra da, izar bakarra eguzki-sisteman. Izar txiki bat da, kolore horikoa. Gizakiok aspaldidanik behatu diogu Eguzkiari, baina, gaurko teleskopio aurreratuei esker, inoiz baino informazio handiagoa lortu dugu. Teleskopio-mota asko daude, eta haiei esker jakin dugu Eguzkia geruzaz osatua dagoela. Hauek dira Eguzkian bereizi ahal ditugun geruzak: nukleoa, fotosfera, kromosfera eta koroa. Barnekoena nukleoa da, eta oso beroa da. Bertan, hidrogenoa fusionatu egiten da, eta helioa sortzen du eta energia askatzen du. 15.000.000 °C graduko tenperaturan dago. Fotosfera argi-izpi ikusgaiak igotzen diren eremua da. Bertan, tenperatura 6.000 °K-ekoa da. Kromosfera fotosferaren gainean dago, eta aurreko geruza baino askoz gardenagoa da. Ezin da zuzenean ikusi, fotosferaren argitasuna dela eta. Eguzki-eklipse batean, ordea, posible da kromosferak duen kolore gorria ikustea. Koroa Eguzkiko atmosferaren kanpo-geruza da. Espazioan zabaltzen da, eta Eguzkia bera baino bolumen handiagoa betetzen du. Koroaren tenperatura oso altua da, milioika gradukoa.
24. Eguzkia gure izar maitea eta zoragarria da, izar bakarra eguzki-sisteman. Gizakiok aspaldidanik behatu diogu Eguzkiari, baina, gaurko teleskopio aurreratuei esker, inoiz baino informazio handiagoa lortu dugu. Orain, badakigu Eguzkiaren baitan hidrogenoa helio bihurtzen dela eta ez dela suzko bola bat. Hidrogeno atomoek elkarren aurka talka egiten omen dute, eta helioa sortzen omen da. Nire ustez, misterio guztia kendu diote. Liluragarriagoa iruditzen zitzaidan desirak eskatu ahal genizkiola pentsatzea. Hauek dira Eguzkian bereizi ahal ditugun geruzak: nukleoa, fotosfera, kromosfera eta koroa. Geruzarik barnekoena nukleoa da, eta oso beroa da. Bertan, hidrogenoa fusionatu egiten da, eta helioa sortzen du eta bero-energia askatzen du: 15.000.000 °C graduko tenperaturan dago. Fotosfera: hantxe sortzen dira argi-izpiak, zoragarriak eta alaitasun-iturri direnak. Bertan, tenperatura 6.000 °C-koa da. Kromosfera fotosferaren gainean dago, eta aurreko geruza baino askoz gardenagoa da. Tamalez, ezin da zuzenean ikusi, fotosferaren argitasunaren erruz. Zorionez, eguzki-eklipse batean posible da kromosferak duen kolore gorria ikustea. Koroa Eguzkiko atmosferaren kanpo-geruza da. Espazioan zabaltzen da, Eguzkia

bera baino bolumen handiagoa betez. Koroaren tenperatura txundigarria da, milioika gradukoa! Pentsatzeak beldurtu egiten nau.

25. Artizarra Lur planetaren bikia da, tamainaz antzekoa baita. Artizarra, tamainaz, seigarren handiena da, Lur planeta baino zertxobait txikiagoa. Planeta gaizto hau ez da maitasuna eta edertasuna bezain gozoa. Espazioa ikertzen hasi baino lehen, uste zuten ozeanoak zituela eta Lur planetaren antzekoa zela. Artizarrak meteorito askoren talkak jasan ditu. Sumendiz josita dago, eta oso paisaia itsusia du, harkaitz beltzez osatua, Lurreko sumendien inguruetan dagoena bezain itsusia eta beldurgarria. Lur planetatik ikusita, oso ederra da. Baina ez da, uste zen bezala, maitasunaren eta edertasunaren jainkosa bezain gozoa. Haren klima gogaikarria oso beroa da, eguzki-sistemako beroena. Hara joatea ezinezkoa litzateke gizakiontzat, kiskaliko baikinake. Ozeanoak izan bazituen, galdu egin zituen, tenperatura beroegien ondorioz. Horrez gain, ekaitz izugarriak izaten ditu, euririk gabeko ekaitz elektrikoak: tximistak eta trumoiak besterik ez. Hango atmosfera pozoigarria da guretzat. Oso lodia da, eta argi gutxi sartzen da. Egunez ere oso argi gutxi dago; oso ilun, alegia. Esandako guztiagatik, Artizarra itsusia, ankerra eta beldurgarria dela deritzot.

26. Artizarra Lur planetaren bikia da, tamainaz antzekoa baita. Artizarra, tamainaz, seigarren handiena da, Lur planeta baino zertxobait txikiagoa. Espazioa ikertzen hasi baino lehen, uste zuten ozeanoak zituela eta Lur planetaren antzekoa zela. Artizarrak meteorito askoren talkak jasan ditu. Sumendiz josita dago, eta haren paisaia harkaitz beltzez osatuta dago, Lurreko sumendien inguruan dagoenaren antzekoa. Haren klima oso beroa da, eguzki-sistemako beroena. Hara joatea ezinezkoa litzateke gizakiontzat, kiskaliko baikinake. Ozeanoak izan bazituen, galdu egin zituen, tenperatura altuen ondorioz. Horrez gain, ekaitz izugarriak izaten ditu, euririk gabeko ekaitz elektrikoak: tximistak eta trumoiak besterik ez. Hango atmosfera pozoigarria da guretzat. Oso lodia da, eta argi gutxi sartzen da. Egunez ere oso argi gutxi dago; oso ilun, alegia.

## **27. Merkurio**

Merkurioren atmosfera oso-oso ahula da, oso mehea; esan daiteke atmosferarik ez duela. Eguzki-sistemako planetarik txikiena da, Pluton kenduta. Ilargia baino zertxobait handiagoa da. Hain txikia denez gero, barnetik hoztu egin da. Esan daiteke hilik dagoela. Eguzkiari bira emateko azkarrena da, baina bere ardatzaren inguruan oso motel biratzen du, eta, beraz, eguna oso luzea da, urtea baino luzeagoa. Hori dela eta, Eguzkiari begira dagoen aldea asko berotzen da. Haren zerua beltza da, atmosferarik ez baitu. Atmosferarik ez duenez gero, meteoritoen

talka asko jasan ditu, eta krater asko ditu. Caloris izeneko kraterra dago bertan, eguzki-sistemako handiena, 1.400 km-koa baita, Iberiar penintsula bezain handia! 100 km-ko asteroide batek eragin omen zuen krater hori. Krater batzuen hondoa, izotza aurkitu da. Nola liteke hori? Uste da kometa baten talkaren ondorioa dela, kometek izotza dute eta. Hala ere, krater guztiak ez dira asteroideek edo kometek eraginak, batzuk sumendiak baitira. Sumendi horiek duela 4.000 milioi urte egin omen zuten erupzioa.

## **28. MERKURIO**

Planeta txiki atsegin hori Eguzkitik hurbilen dagoena da. Oso azkar biratzen du Eguzkiaren inguruan. Bidaiari azkarra da gero! Haren urteak 88 egun irauten du. Askok gustatzen zaio Eguzkiari begiratzea, eta, aho-zabalik geratzen denez gero, ez da gogoratzen buelta emateaz. Hori dela eta, eguna oso luzea du: urtea baino luzeagoa! Oso polita da, zulotxoak josia. Asteroideekin borrokan, kaskarreko asko hartu omen ditu.

## **29. MERKURIO**

Merkurio eguzki-sistemako planeta bat da. Hona hemen haren ezaugarri batzuk:

### **KOKAPENA**

Merkurio Eguzkitik hurbilen dagoen planeta da.

### **ORBITA**

Orbita eliptikoa du. Merkuriok Eguzkiaren inguruan bira bat betetzeko, 88 egun lurtar behar ditu. Errotazio bat betetzeko, berriz, 59 egun behar ditu; hau da, Merkurioren urteak egun eta erdi irauten du.

### **ATMOSFERA**

Oso atmosfera ahula du, oso mehea baita eta, hein handi batean, helioz osatuta baitago. Horrez gain, oxigenoa, sodioa eta potasioa dauzka kopuru txikitan. Tenperatura egunez oso altua da, eta gauez, aldiz, oso hotza.

### **ALDE SOLIDOA**

Planetaren gainazala kraterrez josita dago, gehienak talka egin duten asteroideek eginak.

## **30. Artizarra eta negutegi-efektua**

Artizarra Eguzkitik hasita bigarren planeta da, eta Merkurioren eta Lurraren artean dago. Orbita ia biribila du, hau da, Eguzkiaren inguruan egiten duen bira ia zirkunferentzia bat da. Oso atmosfera dentsoa du, eta, hein handi batean, karbono dioxidoz osatuta dago. Horrez gain, nitrogenoa, argona, helioa eta beste zenbait gas ditu, baina oso kantitate txikitan. Atmosfera oso dentsoa dela eta, negutegi-efektua gertatzen da Artizarrean. Hau da, eguzki-energiak atmosfera zeharkatzen du eta planetaren azala berotzen du. Beroa Artizarrean metatzen da. Gas beroak atmosferan gora egiten du, baina ez da dena barreiatzen; gehiena atmosferan geratzen da —atmosfera berotu egiten da, alegia—. Atmosferaren beroak, halaber, azala berotzen du. Horrela, atmosferak ere areagotzen du Artizarreko beroa. Ondorioz, Artizarra eguzki-sistemako planetarik beroenetakoa da.

### **31. Marte**

Eguzkitik hasita, laugarren planeta da. Planeta gorria deitzen zaio, Lurretik gorria ikusten baita. Gaur egun, badakigu kolore gorria burdin mineralari zor diola. Marteren eta Lurraren artean, badira hainbat antzekotasun. Antzekotasunengatik eta Lur planetatik hurbilen dagoelako, gizakion bizilekua izan ote daitekeen ikertzen ari dira. Artizarra ere hurbil dago, baina haren atmosfera oso astuna da, eta ezingo genuke haren pisua jasan. Beraz, nolakoa da Marte? Zertan da Lurraren antzekoa? Zertan da Lurraren desberdina? Tamaina antzekoa dute, Marte Lurra baino handixeagoa delarik. Martek eta Lurrak masa berdintsua dute, baina Lurra dentsoagoa da; izan ere, bolumen txikiagoa du, baina masa apur bat gehiago. Tenperaturak ez dira berdinak: Marten, tenperaturarik txikiena  $-140\text{ }^{\circ}\text{C}$  da, eta handiena  $20\text{ }^{\circ}\text{C}$ . Lurreko batez besteko tenperatura  $15\text{ }^{\circ}\text{C}$  da; garaiena,  $71\text{ }^{\circ}\text{C}$ ; eta apalena,  $-92\text{ }^{\circ}\text{C}$ . Marten, egunak 24,6 ordu irauten du, eta urteak 687 egun. Lurrean, denok dakigun bezala, egunak 24 ordu irauten du, eta urteak 365,25 egun. Atmosferak ez dira berdinak, oso bestelakoak baizik. Martekoa gizakiontzat itogarria eta pozoigarria litzateke. Planeta gorriaren atmosfera Lurrearena baino askoz arinagoa da, gutxiago pisatzen du. Karbono dioxidoa du bere osagai nagusia: % 95,32. Nitrogenoa, argona, oxigenoa eta neona ere baditu, baina kantitate txikitan. Atmosferak ur-lurruna ere badauka, baina Lur planetakoak baino gutxiago. Orain, Marten, Lurrean bezala, urtaroak daude: udaberria, uda, udazkena eta negua. Marteren urtea Lurrearenarekin konparatuta bikoitza denez gero, urtaroen iraupena ere bikoitza da. Hala ere, Lurrean ez bezala, Marteko urtaroek ez dute berdin irauten: ipar-erdiko urtaro beroak hego-erdikoak baino luzeagoak dira, 51 egun gehiago irauten baitu ipar-erdiko udak. Neguak, ipar-erdian motzagoak badira ere, hotzagoak dira. Lurrean, aldiz, ez dago horrenbesteko alderik.

## ULERMEN ARIKETAK

### Estralurtarrik ba ote dago?

<testua> **Estralurtarrik ba ote dago? Sarri egin izan dio eta egiten dio gizakiak izenburuko galdera hori bere buruari. Alferrik oraingoz, Lurretik kanpo ez baita bizitza-aztarnarik sekula @aurkitu@. @INFER@ Eta bila ari, ari da. Lurrean —eta Lurraren orbitan— dauden teleskopio ahaltsuenek tokirik urrunenak arakutzen @dituzte@.@INFER@ Exoplanetak dira orain helburua; hau da, @HIPO@ eguzki-sistematik kanpo dauden planetak. Jadanik 100 baino gehiago aurkitu dira, eta, unibertsoa hain zabala izanda, askoz ere gehiago aurkituko dira. Beste inor ba ote dago? @Oraindik goizegi da horri erantzuteko. Eguzki-sistematik harantzago aurkitu den azken planeta, tamainaz, Jupiterren antzekoa da. @Lau urtetik behin, Tau 1 Gruis izeneko izarraren inguruan egiten du bira.@ @ Lurretik 100 argi-urtera dago@ eta bere izarretik ia 500.000.000 kilometrora.</testua>**

<ariketak>

<aurre>

<galdera>**Zein da hurrengo hitza?**</galdera>

<ona>**topatu**</ona>

<B>**galdu**</B>

<C>**bilatu**</C>

</aurre>

<inferentz>

<galdera>**Orain arte irakurri duzunaren arabera, esan ea zuzena ala okerra den honako ondorio hau.**</galdera>

<infer1>

<infer>**Beraz, ez da inoiz aurkituko.**</infer>

<erantzuna>**okerra**</erantzuna>

</infer1>

</inferentz>

<aurre>

<galdera>**Zein da hurrengo hitza?**</galdera>

<ona>**dituzte**</ona>

<B>**dute**</B>

<c>**dira**</c>

</aurre>

<inferentz>

<galdera>**Orain arte irakurri duzunaren arabera,**  
**esan ea zuzena ala okerra den honako ondorio**  
**hau.**</galdera>  
 <infer1>  
 <infer>**Unibertsoaren amaiera teleskopioz**  
**beha daiteke.**</infer>  
 <erantzuna>**okerra**</erantzuna>  
 </infer1>  
 <infer2>  
 <infer>**Esan nahi du lehen baino urrutirago**  
**heltzen dela teleskopioen**  
**ahalmena.**</infer>  
 <erantzuna>**zuzena**</erantzuna>  
 </infer2>  
 </inferentz>  
 <hipotesi>  
 <galdera>**Orain arte irakurri duzunaren arabera,**  
**esan ea zuzena ala okerra den honako hipotesi**  
**hau.**</galdera>  
 <hipo1>  
 <hipo>**Orain esan duen zerbait argitzera doa**  
**testua.**</hipo>  
 <erantzuna>**zuzena**</erantzuna>  
 </hipo1>  
 </hipotesi>  
 <anafora>  
 <galdera>**Zer jar daiteke nabarmendutako hitzen**  
**ordez?**</galdera>  
 <ona>**Lur planetatik at izaki bizidunik ba ote**  
**dagoen galderari erantzuteko, oso goiz**  
**da.**</ona>  
 <B>**Oso goiz da galdetu duen pertsonari**  
**erantzuteko.**</B>  
 <C>**Izaki bizidunak bilatzeko, oso goiz da.**</C>  
 </anafora>  
 <elipsi>  
 <galdera>**Zeinek egiten du bira?**</galdera>  
 <ona>**Aurkitu berri duten exoplanetak.**</ona>  
 <B>**Tau 1 Gruis izarrak.**</B>  
 <C>**Satelite batek.**</C>  
 </elipsi>  
 <tekniko>  
 <galdera> **Zein da nabarmendutako hitzen**  
**esanahia?**</galdera>  
 <ona>**Argiak 100 urtean betetzen duen distantziara**  
**dago.**</ona>

**<B>100 urteko bidaia egin behar da hara joateko, hau da, 36.500 eguneko bidaia.</B>**  
**<C>Argi esanda, 100 urteko bidaia, argi ibiliz gero; bestela, denbora gehiago.</C>**

</tekniko>

<gaia>

<galdera>**Hitz hauetatik, batek ez du zerikusirik besteekin. Zeinek?</galdera>**

<ona>**burdina</ona>**

<a>**ugaztuna</a>**

<b>**krokodiloa</b>**

<c>**landarea</c>**

</gaia>

</ariketak>

<birformulazioa>

**Lot ezazu ezkerreko paragrafoa dagokion testuarekin:**

< lerroalde>

**Sarri egin izan dio eta egiten dio gizakiak izenburuko galdera hori bere buruari. Alferrik oraingoz, Lurretik kanpo sekula ez baita bizitza-aztarnarik aurkitu. Eta bila ari, ari da. Lurrean — eta Lurraren orbitan— dauden teleskopio ahaltsuenek tokirik urrunenak arakutzen dituzte.**

**<ona>Lur planetan bertan zein inguruan dauden teleskopioek arakatu duten arren, oraingoz ez da bizitzarik aurkitu Lur planetatik kanpo.**

</ona>

**<a>Lur planetatik kanpo arakatu dugun arren, ez da gizakirik aurkitu. Planeta guztiak aztertu ditugu, eguzki-sistemakoak eta teleskopioek aurkitu dituzten gainerako guztiak, baina alferrik.</a>**

**<b>Lur planetan bertan zein kanpoan dauden teleskopioek arakatu duten arren, oraingoz ez da bizitzarik aurkitu Lur planetatik kanpo. Eguzki-sistemaren kanpoaldean dauden planetetan begiratzen ari dira orain, ea izaki bizidunik baden.</b>**

</ lerroalde>

< lerroalde>

**Exoplanetak dira orain helburua; hau da, eguzki-sistematik kanpo dauden planetak. Jadanik 100 baino gehiago aurkitu dira, eta, unibertsoa hain zabala izanda, askoz ere gehiago aurkituko dira. Ba ote dago beste inor? Oraindik goizegi da horri erantzuteko. Eguzki-sistematik harantzago aurkitu den azken planeta, tamainaz, Jupiterren**

antzekoa da. Lau urtetik behin, Tau 1 Gruis izeneko izarraren inguruan egiten du bira. Lurretik 100 argi-urtera dago eta bere izarretik ia 500.000.000 kilometrora.

**<ona>Oraindik ezin da erantzun ea izakirik baden gure planetatik at. Une honetan, eguzki-sistematik kanpo dauden planetak behatzen ari dira, ea haietan izaki bizidunik baden. Jadanik 100 planeta baino gehiago aurkitu dira, eta espero da beste asko aurkitzea, unibertsoa oso handia baita. Aurkitu den azkena Jupiterren tamainakoa da. Tau 1 planetari Gruis izarraren inguruan bira osoa egitea lau urte kostatzen zaio. Gure planetatik haraino joateko, argiaren abiaduran, ehun urte beharko genituzke. Gruis izarretik bostehun miloi kilometrora dago. </ona>**

